

XX. Sagar Uzta 2020 Astigarragan

Irailaren 24-26-27an XX. Sagar Uzta 2020 ekitaldia ospatuko da Astigarragan. Covid-19a dela eta, festa egoera berrira moldatu da eta segurtasun neurri guztiak errespetatuz eta aforoa mugatuz, herritarrek sagarraren uzta garaia ospatzeko jardura ezberdinak antolatu dira: sagar muztioaren elaborazioa familian, helduentzako kirikoketa tailerra eta sagardo sagarren kata.



XX. Sagar Uzta 2020 Astigarragako tabernek eskainiko duten sagarraren eratorriekin egindako **pintxo-pote** bereziarekin hasiko da irailaren 24an (osteguna). Aurtengo egitaraua, ordea, egoera berrira moldatu eta Covid-19ak ezarritako segurtasun neurri guztiak bermatuz ospatuko da. Ondorioz, Astigarragako Foru plazan ospatu ohi den **sagarraren azoka ez da egingo** eta horren ordez, irailaren 26 eta 27an herriko familien partaidetzarekin **sagar muztioaren elaborazio tailerrak Sagardoetxean** egingo dira, talde txiki eta txanda ezberdinetan antolatuta eta Goldea Herri Kirol Elkartearen laguntzarekin, alde zuzenaz izena emanda.

Irailaren 27an (igandea) **sagar muztioaren elaborazio lanak familian** egiteaz gain, helduentzako **kirikoketa tailerra** eta sagardo **sagarren kata** ere izango dira Sagardoetxean.

Aipaturiko jardura hauen plazak mugatuak izango dira eta beraz, sagar muztioaren elaborazio lanetan, kirikoketa tailerrean eta sagar katan parte hartu nahi duten herritarrek, **aurrez izena eman** beharko dute www.sagardoarenlurraldea.eus webgunean.

Jarraian, **XX. Sagar Uzta 2020** jaiaaren **egitaraua** zehazten dugu:

Osteguna, Irailak 24

19:00-21:00 PINTXO-POTEA Astigarragako tabernetan. Sagarren eratorriekin egindako pintxoak eskainiko dira.

Larunbata, Irailak 26

10:30-13:30 SAGAR MUZTIOAREN ELABORAZIOA FAMILIAN* Sagardoetxean.

Igandea, Irailak 27

10:30-12:30 SAGAR MUZTIOAREN ELABORAZIOA FAMILIAN* Sagardoetxean.

10:30-12:30 KIRIKOKETA TAILERRA* Sagardoetxean.

12:00 SAGAR KATA*.

* Plaza mugatuak. Derrigorrezkoa da aurrez erreserba egitea: www.sagardoarenlurraldea.eus